

14. (1461-1470)



14.1. 1461. URTEA

14.1.1. Arreitza Bergaran, gebaratarrak eta Arrasateko Batzarrak, etab.

Joan Arreitza zestoarra 1461-II-2an ustez Bergaran zen ordainketa bat egitera joanda. Zestoako Kontzejuaren izenean Joan Martinez Zabalotegikoa eskribau bergararrari 1.323 marai ordaindu zizkion. Hain zuzen Ordiziako Batzar Nagusian erabaki zen 1460an Mendoza (gure ustez Joan Hurtado Mendozakoa) korrejidore izan zenarentzat zenbait marai ematea eta Azkoitia batxilerrari hogeikintal burdina ematea. Sukalde bakoitzeko 27 marai ordaindu behar ziren, eta Zestoari 49 sukalde zegozkionez gero, guztira 1.323 marai ordaindu zituen. Egia esan, 1460. urtean Ordizian Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu izanaren albisterik ez dugu topatu, baina agiri horrek horixe dio (ikus [XV. m. 24] agiria).

1461eko apirilaren 12aren eta maiatzaren 9a bitartean itunak egin zituzten, alde batetik Iñigo Belez Gebarakoak (Oñati, Leintz bailara, Leintz Gatzaga eta Egirazko Ermandadeak), eta, bestetik, Arrasateko hiribilduak, elkarren aurka izandako borroka eta kalteei amaiera ematearren. Horretarako beren prokuradoreak izendatu zituzten. Arrasateko Kontzejuak Lope Gartzia Arkarazokoa, Lope Fernandez Osinagakoa eta Joan Santxez Arratolakoa hautatu zituen¹, eta Oñatiko Kontzejuak ere bai bereak: Joan Beltran Murgia, Antso Gonzalez Garibaikoa, Joan Martinez Naharriakoa, Martin Ibañez Naharriakoa, Martin Martinez Iraegikoa eta Pedro Lopez Leizarrakoa, hain zuzen².

Azken batean, Iñigo Belez Gebarakoak eta haren jarraitzaileek Arrasateri barkatu egin zioten Zalgibarko burdinola, errotak eta abar eraitsi eta erre izana. Ordainetan Arrasatek 50.000 marai (bina sos zaharrekoak) emango zizkion Iñigo jaunari. Bestalde, Iñigo jaunak eta haren jarraitzaileek 250.000 marai emango zizkioten Arrasateri 1448an hiribildua erretzeagatik³.

1461. urtean, uztaila baino lehen Batzar Nagusiak Donostian bildu ziren. Han egindako eskabidearen ondorioz, Enrike IV.a erregeak uztailaren 9an, Logroñotik, ordenantza eman zuen, eta bertan Gipuzkoako Batzar batzuetatik beste Batzar batzuk egin arteko Aldundiari baimena eman zion beharrezkoa zela zerizkienean edonon eta edonoiz Batzar Bereziak bilduteko⁴. Badirudi garai hartan Ahaide Nagusiak erregaren agindupean ibiltzen zirela. Enrike IV.ak Basartee taU sarragaont zatj oz ituenB atzarB ereziak egiteko, Probintziaren erdian zeudelako eta lehen Oñatz eta Ganboakoen jarraitzaile zirenak leku horietara seguruago joan zitezkeelako⁵.



14.1. irudia. Bidegoian. Usarraga baserriko Batzar Berezien oroigarria.

Hurrengo, 1461-VII-10ean Bidanian ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Arrasatek Domenjon Gonzalez Andiakoari Gipuzkoako hiribilduen aurkako bidegabekeria-testigantza eskatu zion⁴. Ermanda-

deak, izan ere, Arrasateren aurkako agindua eman zuen, eta hauek, 1461-VII-27an, Joan Ibarra prokuradorearen bidez Errege-kontseilura jo zuten agindu haren aurka².

1461. urteko udan, Gaztelako Enrike IV.a Logroñon zela, Nafarroaren aurkako gerrari ekin zioten. Gipuzkoatik ere soldadu ugari joan zitzaizkion beren lantza eta baleztekin⁶. Handik laster, 1461-IX-28an, hil zen Bartzelonan Nafarroako Karlos erregegaia edo Bianako printzea⁷.

1461-IX-29an Gaztelako Enrike IV.a erregeak Azpeitiko Eizagirre auzoan, Matxinbentan, zeuden Isurola burdinoletako “albala eta hamarren zaharra” deitutako zergak Gartzia Medinari eman zizkion bizialdi osorako. Jaun berari eman zizkion errege berak orain Zestoakoa den Arroakolak, Lilikoak, Iratetakoak eta Joan Perez Loiolakoarenak ordaindu beharreko zergak ere⁸. Isurolako burdinolei dagokionez, inoiz pentsatu izan dugu lehen Legazpi ibaia deitzen zitzaionari gero Urola ibaia izendatzeko aldaketan burdinola haien izenak zerikusirik ba ote zuen.

Egun bat geroago, 1461-IX-30ean, Enrike IV.a erregeak Madrildik gutuna bidali zuen Gipuzkoara, eta bertan zioenez, itsasoan anai artean gauzatzen ziren gertaerak epaitu ahal izango zituen bertako Ermandadeak⁹.

14.1.2. Antxiturbiko sarioia, Aizarnazabalgo hamarrenak eta Bergarako Batzarrak

Errezilgo eliz atarian bertako Kontzejua bildu zen 1461-X-4an, eta honako erabaki hau hartu zuten: hamabi gorabilekoa zen Intzitorbiko (orain Antxiturbiko) sarioiaren erdia saltzea. Sarioia Kontzejuarena zen, eta Errezilgo lurretan zegoen. Salmentaz ardura zitezten, bost pertsonari ahalordea eman zieten. Hauek izango ziren saltzaileak: Martin Otxoa Bildaingoa, Martin Iraola, Lope Arretxe, Joan Agirre eta Martin Mugarrieta. Joan Martinez Loidikoa izan zen eskribaua.

Eskribau berak lau egun geroago Antxiturbiko sarioian beste agiri bat idatzi zuen. Bertan, aipatutako bost ahaldunek Zestoako Fernando Ruiz Etxeberrikoari Intzitorbia edo Antxiturbiko sarioiaren erdia saldu zioten 260 florinean. Sarioiaren mugak ere zehaztu ziren. Alde batetik Antso Barrenola eta Migel Barrenola azpeitiarren lurrek egiten zioten muga, eta goialdean Zestoako lurrek. Sarioiak zituen ondasunak ere izendatu ziren agirian: mendi, lur, zuhaitz, larre, ur, angio, belar, bide eta kortak. Salmentako lekuko izan ziren Joan Martinez Galarragakoa, Antso Garmendia, Migel Mugarrieta (hauek errezildarrak), Migel Barrenola eta Antso Barrenola (hauek azpeitiarrak) (ikus [XV. m. 25] agiria).

14.2. irudia. Intzitorbigoikoa (Antxiturbigoikoa edo Txapel) baserria.



Egun batzuk geroago, 1461-X-17an, Iraetako jauzian, Martin Ierroa Aizarnazabalgo elizako erretoa eta Fortun Santxez Iraetakoa (bertako jauna) bildu ziren errentamendu-agiri bat sinatzera. Agirian Iraetako Ahaide Nagusiaren etxeari “jauregia” deitzen dio; izan ere, lehenago, 1456. urtean, Gipuzkoako Ermandadeak dorrea eraitsi egin zion, eta 1457. urtean hasita bi urtez Cadizko Jimena de la Frontera herrian erbesteraturik egon ondoren itzulia zen.

Erretoreak Aizarnazabalgo parrokiako hamarren eta opalkuntzen eta irabazien erdiak Fortun Santxez Iraetako jaunari hamabost urterako eman zizkion, eta errentaren balioa dirutan eta burdinatan ordaindu zizkion iraitarrak. Errentan hartutako hamarrenak Legazpi (edo Urola) ibaia eta Ezuri (oraingo Etxubi) bitarteko etxeak ziren, Saiazkoak, Oikia eta Bedua barne zirela, baina ez ziren errentamenduan sartzen San Migel parrokiaren inguruko etxeak. Martin Ierroa erretorea hamabost urte igaro baino lehen hiltzen baldin bazen, ondorengo erretoreak Fortun San-

txezi (edo honen ondorengoari) urtero lau mila marai emango zizkion hamabost urteak bete arte.

Martin Ierroak kontratu hura egiteko Iruñeko elizbarrutiko Iohanes de Mychaellibus bikario nagusiaren baimen idatzia zuen. Elkarri bermeak eman zizkioten kontratu haren aurka ez zirela joango ziurtatzearen. Lekuko izan ziren Gartzia Arbestain (Aizarnako erretorea), Joan Arano eta Joango Ierroa Zestoako auzotarrak. Joan Martinez Zumaiakoa apaiz eta Iruñeko elizbarrutiko notarioak idatzi zuen agiria (ikus [XV. m. 26] agiria).

1461-XI-16an Bergaran Batzar Nagusiak bildu ziren. Bertan foru-baimena eman zitzaion erregeak irailaren 30ean Madrildik bidalitako gutunari, non itsasoko gertaerak Ermandadeak epaitzea agintzen baitzen⁴.

Urte hartan, 1461.ean, Joan Gartzia Santo Domingokoa izan zen Gipuzkoako korrejidore¹⁰.

14.2. 1462. URTEA

14.2.1. Batzarrak Usarragan eta Zestean

1462-IV-26an, Erromako Pio II.a aita santuak Iruñeko elizbarrutirako Nikolas Etxabarri izendatu zuen apezpiku, aurrez Bessarion kardinalak bere kargua utzi egin zuelako⁷.

Gipuzkoan, berriz, badirudi Ahaide Nagusiak Ermandadeari laguntzen ari zirela; izan ere, Enrike IV.a erregeak Ahaide Nagusiei botarazitako zein dorre ari ziren berriz eraikitzen jakin nahi zuen, baina geroago, 1462-VIII-4an, Arandatik berak emandako aginduak bertan behera utzi zituen⁵.

1462-IX-17an Bidaniko Usarragan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren. Bertan Debak Elgoibarrekin eta Martin Ruiz Ganboakoarekin (Olasoko jaunarekin) aspalditik izandako gatazkak azter-

tu eta bideratu zituen Ermandadeak. Lope Martinez Zarauzkoa eta Joan Martinez Aierdikoa eta Martin Ibañez Lertxundikoa batxilerrak izendatu zituzten epaile bi hiribilduen arteko gorabeherak konpontzeko¹¹. Besteak beste Arregiko arrantza-lekua eta Garagartzako Andre Mariaren elizako patronatua zituzten eztabaidagai⁵. Baita Aranogibeleko larreak ere. Debak, besteak beste, Joan Ibañez Amilibikoari ahalordea eman zion gai hartaz ardura zedin.

1462-X-30ean Lope Martinez Zarauzkoak eta Joan Martinez eta Martin Ibañez batxilerrek beren epaia eman zuten Mendaron, Gabiola aurrean¹². Debako Udal Artxiboan epai horrexen agiriaren beste kopia bat dago, baina 1472-X-20ko data transkribatu izan zaio. Beraz, gertaera hauek hamar urte geroagoak, 1472koak, izan daitezke¹³.



14.3. irudia. Zestoa. Amilibitxiki baserria.

Geroxeago, 1462-XII-3an, Zestoa Liliko sagastian aipatutako bi batxilerrek Aranogibelgo larreei buruzko epaia eman zuten. Sagastia Martin Diaz Liliakoarena zen.

Elgoibarrek prokuradore gisa Otxoa Arregi zuen, eta Debak Joan Ibañez Amilibikoa. Debako partea zen Aranogibel, baina bertan ganaduak larratu eta gauean edukitzeko Elgoibarren zuzenbidez zituen eskubideen berri eman behar zuten bi batxilerrek.

Hauek idatzia zuten beren epaia eta aitortpena, eta Martin Santxez Untzuetakoa eta Joan Martinez Debakoa eskribauen eta lekukoen aurrean irakurri zuten. Elgoibarrek zioenez, eskubidea zuen lur haien prestazioa izateko eta ganaduak larratu eta bertan gauez ere edukitzeko; izan ere, lehenago, Rui Perez Ganboakoa merio zen garaian, kontratua eginga zuten bi hiribil-

duek. Debak ezezkoa zioen, kontratu horretan prestazio hori aipatzen ez zelako. Gainera 50 urtean Debako ofizialek herrikoak ez ziren abereak bahitu egin zituzten. Elgoibarren, berriz, Aranogibelen soroak eta etxeak egiteko eskubidea ere bazuela zioen.

Bi batxilerren epaian bi hiribilduek izango zuten eskubidea Aranogibelen edozein abere mota larratzeko eta gauean edukitzeko. Ez zuten, ordea txabolarik, etxerik, hesirik eta inolako itxiturarik egingo. Aranogibelen basoek eta lurrek izaten zituzten hobekuntzak Debarentzat izango ziren (ikus [XV. m. 27] agiria).

Epaia entzutean lekuko izan ziren Otxoa Martinez Debakoa eta Joan Perez Basabilgoa debarrak, eta Domingo Perez Antzuritzakoa eta Martin Ortiz Egurolakoa mutrikuarrak, etab.¹². Agiri honetan esaten denez, Liliko sagastian epaia eman zutenean Zestoa

Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatzen ari ziren, baina ez dugu albiste hori beste inon aurkitu. Gainera, Debako Udal Artxiboan agiri hauxe dago hitzez hitz jasoa, baina 1472-XII-3koa da, hots, doi-doi hamar urte geroagokoa da Debako agiriaren arabera¹³. Segurua da 1472ko abenduan Zestoan Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu zirena, hainbat agiritan azaltzen denez gero.

Gipuzkoako Ermandadea garai hartan, 1462an, Ahaide Nagusiei nagusitzen ari zitzairen, eta horretara

rako bazituen bere baliabideak. Horietako bat gerra-deia egitea zen. Gerra-deia egiteko bete beharreko baldintzak 1462an Toledoko Gorteetan ezarri ziren, baina Gipuzkoan denbora luzez desberdintasunak izango zituen. Hain zuzen gerra-deia edozein Kontzejutako justizia-gizonek egin zezaketen, baina baita beste edozein pertsonak ere, bakea ezarri edo gaizkilea jazarri behar bazen⁵.

14.3. 1463. URTEA

14.3.1. Gipuzkoako eta Arabako Ordenantzak, eta beste

1463-III-8an Debako marinelen kofradiakoak elizan bildu ziren Lekeitioko kofradiakoen eskakizunei erantzuna ematearren. Itsasontziak hondoratzen zirenean pleitak nola ordaindu behar ziren erabaki behar zuten. Debako bileran parte hartutako batzuk Joan Ibañez Areitzagakoa, Migel Alos Amilibikoa eta Martin Aizarna ziren, hau da, gaur egun Zestoako parte diren etxeetako deitura zutenak eta Debako biztanle zirenak¹⁴.

Lekeitiotik Ondarroara joana zen Martin Perez Likonakoa 1414. urtean. Martin Gartzia Likonakoa doktorea, Martin Perezen biloba, 1463. urte inguruan Azkoitiko Balda etxean finkatu zen, eta erregearen mesedez, Azkoitiko elizaren patronatua zuen. Maria Zarautz emaztearekin Marina Balda alaba izan zuen, hau da, Loiolako San Inazioren ama¹⁵.

1463. urteko apirilean Gasteizko judutegiko Gaon jauna Tolosara etorri zen. Gaztelako Enrike IV.aren izenean zergak jaso nahi zituen, baina tolosarrek jakinarazi ziotenez, hiribildu hari ez zegokion zergarik ordaintzea, horretarako pribilegioak zituelako. Judua, ordea, behin eta berriz setatu zen bere zergak kobratu nahian, eta, azkenean, herria matxinatu eta hil egin zuten. Burua pikotan zintzilik egon zen denen aurrean.



14.4. irudia. Tolosa. Andre Mariaren eliza

Enrike IV.ak, Hondarribitik Tolosara heldu zenean, haserretu eta hiltzaileak zigortzea agindu zuen. Hiltzaileek, ordea, ihes egin zuten⁶. Gaztelako erregea apirilaren 28an Bidasoa ondoan Urtubin (Urruñan) zen Frantziako Luis XI.a erregearekin. Apirilaren 29an ituna sinatu zuten¹⁶.

1463-V-4an Enrike IV.ak Gipuzkoarako 207 kapituluko Ordenantza-koadernoak idaztea agindu zuen¹⁷. Euskal Herriko lurretara Gaztelako erregeak egin zuen bidaia hartan, Enrike IV.ak Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari Ermandadeko Ordenantza-koaderno bana eman zien. Arabak orduan lortu zuen lehen aldiz hiribilduak eta Lur zabala Ermandade berean biltzea. Bizkaiko Ordenantza-koadernoak, berriz, 1452an idatzitako Foru Zaharrarekin elkaturik argitara eman zen.

1463. urtea Gipuzkoarentzat Ordenantzen urtea izan zela esan daiteke. Orduan erabakita zegoen Probintziako Ermandadeak Ahaide Nagusiak garaitu egin zituela. Hauek erbestetik itzuli zirenean Gaztelako erregeari mendekotasun-zina egin zioten, eta hiribilduen Ermandadean sartu beharra zuten, nahiz eta azken betebeharrak hau saihesten saiatu ziren⁵. 1457. urteko Ordenantza-koadernoarekin hasita, baina, batez ere, 1463koarekin ekin zion Probintziak erakunde aldetik egitura juridikoa gauzatzeari. Batzarrak noiz eta non egin zehaztu egin ziren, ordura arte txandak ongi errespetatzen ez zirelako. Gainera, Batzar haietan Ahaide Nagusiek eta haien jarraitzaileek ezin zuten parte hartu. Erdi Aroko Ermandadea Probintzia deitutako sistema politikoak ordezkatu zuen¹⁷.

Ahaide Nagusiek erabili izan zuten baliabide bat desafioa zen, baina 1463ko Ordenantzetan, 136. ordenantzatan, berariaz araututa geratu zen. 1463an Ahaide Nagusien aurka ateratako ordenantzek zenbaki hauek zituzten: 114, 116, 118, 124, 137, 140-145, 148-150, 152-176, 181, 182.

Gipuzkoako alkate nagusiaz ziharduten ordenantzek zenbaki hauek zituzten: 5, 50, 51, 53 eta 186.

Hain zuzen 1463-VI-3/13an Arrasaten egindako Batzar Nagusietan onartu zen Ordenantza-koaderno hura, baina Bolloidun Liburuan ez zeuden idatzita⁵.

Ahaide Nagusien aurkako Ordenantza-koaderno hartan argi eta garbi zehazten zen Gipuzkoan erregeak eta Ermandadeak zutela jurisdikzioa, eta beste inork ere ez. Debekatu egin zitzaizkien matxinatzea, kartzela pribatuak edukitzea, jendea atxilotzea eta desfioak edonola egitea. Probintziako biztanleei lapurtutako ondasunak ere itzuli egingo zitzaizkien¹⁸.

Batzar Nagusietarako deia behar bezala eginda bertara korrejidorea edo honen ordezkaria joaten ez bazen, Batzarra egiten zen hiribilduko alkatea izango zen buru. 1463. urteko 61. ordenantzatan Batzar Bereziak zein kasutan bil zitezkeen zehaztu zen. Gainera, Ermandadeko hiribildu eta lekuetako ordezkariak nahitaez joan behar zuten Batzarretara. Batzarretako prokuradore izateko gizon ona, ondasunak zituen eta Ahaide Nagusien eraginetik kanpokoa izan behar zen.

Prokuradoreak ezin ziren bortxatu, atxilotu edo preso hartu. Beren negozioetan ezin zuten jardun, eta sekretua mantentzera behartuta zeuden. Prokuradoreekin batera, Batzarretara joan beharra zuten bi ermandade-alkatek, hiribilduko hurbilenak, hain zuzen⁴. Ermandade-alkateen jardura ere arautu zen Ordenantzetan. Aurrerantzean ezingo zituzten kartzelatik aterata libre utzi hilketetan parte hartutakoak¹⁹.

Arrasaten 1463-VI-3/13an onartutako Ordenantza-koadernoak Fernando Gonzalez Toledokoa doktoreak eta Pedro Alfonso Valdivielso eta Joan Gartzia Santo Domingokoa lizentziatuek egina zen Enrike IV.aren aginduz. Arrasateko Batzar Nagusietan Domenjon Gonzalez Andiakoa eskribau fiela eta Fernando Alvarez Pulgarkoa, erregearen ganberako eskribaua, izan ziren¹¹. Koadernoak 207 ordenantza zituen, eta, besteak beste, Ahaide Nagusiei (edo haien jarraitzaileei) debekatu egiten zitzaizkien hiribilduetako alkate, zinegotzi edo ofizial izatea²⁰.



14.5. irudia. Zestoa. Batzar Nagusien gela.

14.4. 1464. URTEA

14.4.1. Martin Bañez Artazubiagakoaren heriotza

1464. urteko maiatzean, Arrasateko Ibarretan (Uribarri auzoan) Martin Bañez Artazubiagakoa ganboatarra eta Garagartzako Joan Ibañez Barrutikoa hil egin zituzten Joan Alonso Muxikak (Aramaiio, Muxika eta Butroeko jaunak) aginduta. Hiltzaileak hauek izan ziren: Otxoa Urrexola, Otxoa Umaran, Joan Ortiz Urrexolakoa, Ortuño Butroekoaren sasiko seme bat eta Diego Amezkarai. 1448ko gertaerengatik mendeku hartu zuten³. Martin Bañezek ezereen susmorik gabe ongietorria egin zien hiltzaileei. Eskuak altxatu zituen ikusi zituenean, bake-giroan. Esku batean armak zituen, eta bestean kapelua²¹.

1464-VII-18an gaizkileak hiltzera kondenatu zituen Gipuzkoako Ermandadeak³. Aitzoz lepoa moztu eta buruak hiribilduko atean zintzilik ipiniko zituzten. Hilketa izan eta handik egun gutxira lepo egin zioten bati. Beste hiltzaile bat sei urte geroago harrapatu eta hil zuten. Martin Bañezen senideek, berriz, hiltzaileen laguntzaile izandako hiru hil egin zituzten. Horregatik kartzela-zigorra baino ez zuten bete²¹.

Martin Bañezen emazte Santxa Otxoa Ozaetakoak eresiak kantatu zituen. Ezaguna da honako hau: “Oñetaco lurrau jabilta icara,/ Lau araguioc verean verala,/ Martin Bañes Ybarretan il dala,/ Artuco dot escu batean guecia,/ Bestean çuçi yraxegüia,/ Erreco dot Aramayo guztia.//”

Lurra dardarka ari zen, eta lau aldetako haragiak ere bai, Ibarretan Martin Bañez hil egin zelako. Esku batean azkoina hartuko zuen, bestean zuzia piztuta, eta Aramaio osoa erreko zuen²².

Martin Bañez Artazubiagakoa merkataritzan ere ibili zen. Besteak beste Joan Martinez Aizarnakoaren itsasontzia (“belliner” edo “balliner” motakoa²³) pleitatu zuen. 1.480 barra burdina bidali zituen. Barra haiek 29.299 libra pisatu zuten²⁴. Aipatzen den Joan Martinez Aizarnakoa gure ustez aurreko urteko martxoaren 8an Debako elizan marinelen kofradian azaltzen zen Martin Aizarna bera da.

1464. urtean Gipuzkoako merio nagusi Gartzia Lopez Aiarakoa izan zen, eta korrejidore Gartzia Franco, Alonso Franco ordezkotzuela¹⁰. Badirudi korrejidore honek Probintziako ahalmen eta askatasunei eraso egin ziela¹⁷. Hala ere, 1464-XII-4an Enrike IV.a erregeak Cabezon herritik Probintziari onartu egin zion Batzarretan korrejidorea ez zegoenean ere gastuak sukaldeka banatzea⁴.

Urte hartan Lope Gartzia Lazkanokoaren (Loiola-ko jaun izandakoaren) emazteak testamentua egin zuen. Joan Perez Loiolakoa izan zen oinordekoa⁵.

Getarian, berriz, Lope Martinez Zarauzkoa Gortera bidali zuten balea harrapatutakoan Donostiako probestuari eman beharreko zatiaz zegoen auzia argitzera. Hain zuzen urte hartan Getariako Malkorbeko hondartzan balea bat hilda agertu zen. Urte hartan eman zuen erregeak, dirudienez, Getarian marinelen kofradia eta itsas kabildoak eratzeko baimena²⁵.

1464-XI-22an, bestalde, Tarragonan, Iruñeko Nikolas Etxabarri apezpikuaren eraginez, bakea sinatu zuten Nafarroako Joan I.a erregeak (Aragoiko Joan II.ak) eta Beaumontarren ordezkariak. Nafarroan hamahiru urtez iraundako gerra zibilari eman zitzaion amaiera⁷.

14.5. 1465. URTEA

14.5.1. Debako burdinolak. Arroa, Lili eta Iraetako olak

1465-XI-11n Debako elizan Debako hiribilduko Kontzejuak eta bertako lurraldeetako burdinolen nagusiek ituna sinatu zuten.

Batetik Debako biztanleak Kontzejuan bildu ziren, eta, bestetik, Debako lurretan burdinolak zituztenak: Otxoa Martinez Arroakoa, Fernan Migelez Irarrazabalgoa (Fortun Santxez Iraetakoaren izenean), Joan Fernandez Irarrazabalgoa (Martin Diaz Lilikoaren izenean) Antso Migelez Gabiolakoa, Migel Ibañez Lasturkoa, etab. Orain Zestoakoak diren Arroakola, Lili eta Iraetako burdinolak garai hartan Debako lurretan zeuden, eta horregatik parte hartu zuten 1465eko itun hartan.

Burdinoleko jabeek ziotenez, Gaztelako erregeek emandako pribilegioak zituzten Debako herrilurretako basoetan ezer ordaindu gabe ikatza egiteko etabur dinoletanbe harz ene gurrae skuratzeko. Herriko baso guztiak, ordea, soilduta zeuden, eta arazoari erremedioa eman behar zitzaion. Kontzejuak zioenez, berriz, olagizonek ez zeuzkaten eskubide haiek, eta basoak saldu egingo zizkieten tratua eginda. Bi aldeek onartu egin zituzten baldintzak. Batzuk hauek izan ziren:

- Kontzejuak izendatutako ordezkariak herrilurretatik angio batzuk zehaztuko zituzten, eta herriko burdinolentzako ikatza handik aterako zen. Baita Fernan (Fortun) Saez Iraetakoaren Arrubia-ko burdinolentzako eta Martin Diaz Lilikoaren burdinolentzako ikatza ere.



14.6. irudia. Lili ondoko Olalde (lehen Debako parte zena).

- Mendi horiek beti ere ikatza egiteko eta burdina lantzeko salduko ziren, baina lizarrak gorde egingo ziren ordenantzak agindutakoaren arabera. Debako lurretan zeuden burdinolak hauek ziren: Martin Otxoa Irarrazabalgoarena eta Joan Ruiz semearena, Migel Ibañez Lasturkoarena, Leizaola-koa, Zubeltzukoa, Arroakoa, Artzubikoa (Iraetakoa gure ustez) eta Lilikoa. Basoak banatu egingo ziren burdinola horien artean.

- Burdinola bakoitzak zegokion mendiaren herenarekin urtu behar zuen burdina, hau errentan hartzen zuenak. Orduan burdinolaren errenta ekointzitako hamar kintal burdinatik kintal batekoa zen.

- Burdinoletako jabeek ezarritako prezioan zegokien mendien herena hartu nahi izango ez balute, burdinolak errentan eman beharko zizkien Debako biztanleei, hauek erosi nahi bazituzten, eta Debako biztanleei ohiko errenta kobratuko zieten, hau da, hamar kintal burdinatik bat. Burdinoletako mazolariek eta beharginek ere beren ohiko soldata jasoko zuten.

- Ikatzetarako hartutako mendi horietan haritzik ez zuen inork moztuko. Salmentan zehaztutakoa baino ez zen moztuko. Bestela, zuhaitz bakoitzeko urrezko hiru frankoko isuna ezarriko zen.

- Burdinoletakoek aipatutako mendietan gabi-iguna egiteko edo hauspo-oholak egiteko zenbait pago edo lizar bereizten baldin bazituzten, beste inork ezingo zituen zuhaitz haiek eraman.

- Debako mendietan inork ezingo zuen surik egin. Su emandako pertsona su hartantxe hiltzera eta Bandako ordenako ikurra zuten hamar dobla ordaintzera zigortuko zen.

- Esanda bezala ez baldin bazen, mendi haietan ezingo zuen inork ikatzik egin, egurrik atera edo oholik egin. Arau hau hautsiz gero, kaltea egin zuenak lehen aldian bostehun doblako isuna ordaindu eta Kontzejuko kateari lotuta urtebetez egon beharko zuen. Bigarren arau-haustean erre egingo zuten.

Joan Martinez Debakoa eskribauak idatzi zuen agiri-ria, eta lekuko honako hauek izan ziren: Martin Otxoa Itziarkoa eskribaua, Martin Otxoa Sasiolakoa (zaharra), Migel Gaintza, Martin Otxoa Iribekoa, Domingo Martinez milibikoa eta Joantxo barberua, denak ere Debako biztanleak (ikus [XV. m. 28] agiria).

Handik egun batzuetara, 1465-XI-26an, Itziar, Lastur eta Arroan bizi ziren Debako berrogeita bederlatzi auzotar bildu ziren, eta bertan agiri bat sinatu

zuten. Hiribilduak zituen pribilegioak eta Ordenantzak betetzeko konpromisoa hartu zuten.

Debako biztanle haietako batzuk hauek ziren: “Txerran” Indo errementaria, Itziar zaharrea bizi zen Domingo Bilbao, Otxoa Erreten (Otxoa “Perrokel” goitzenekoa), Joan Arakeristain (edo Arakistain), Otxoa Martinez Arroakoa (olagizona eta Arroakolako nagusia), “Morrontxe” Arbe (Arbegoikoa baserriaren jabea), Joan Sastarrain (mazolaria eta Artzuriaga etxearen jabea), Joan Arbe (“Txurdeo” goitzenekoa, Arbebekoa baserriaren jabea), Otxoa Larretxe (edo Larretxe, Larretxebekoa baserriaren jabea), Joan Ermua (Ermua baserriko jaun eta jabea), Pedro Arbe mazolaria, Areitzagaxe zurgina, etab.

Joan Martinez Debakoa eskribauak idatzi zuen agiria, eta hauek izan ziren lekuko: Joan Diaz Irarra-

zabalgoa (probestuaren semea), Martin Otxoa Sasio-lakoa (zaharra), Joan Ibañez Amilibikoa, Domingo Martinez Itziarkoa, etab. (ikus [XV. m. 29] agiria).

Zerrenda horretako “Txerran” Indo errementaria, gure ustez, Lasturko Indokoa zen, eta ez Zestoako Indamendi ondoko Indo baserrikoa⁸. Gainera, aipatu beharra dago 1465-XI-11ko agiri hau inoiz hamar urte geroagokotzat (data 1475-XI-11koa delakoan) hartu izan dela.

Aipatutako egun berean, 1465-XI-26an, Itziar, Lastur eta Arroako 49 biztanleek Deban zin egin zuten sinatutako agiria baliozkotzat eman ez eta bertan adierazitakoa bete egingo zutela berretsiz¹³.

14.6. 1466. URTEA

14.6.1. Batzarrak Usarragan, Donostian eta Azkoitian

1466-II-7an Bidaniko Usarragan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren. Egun batzuk geroago, otsailaren 15ean, Gaztelako Enrike IV.a erregeak, Segovian zegoela, Ermandadeetako prokuradorei pertsona susmagarriak eta erbesterratuak ikertzeko ahalmena eman zien. Egun berean Beasaingo Igartza etxea eta honen ondasunak Gipuzkoako Probintziari eta prokuradorei eman zizkien hiribildu eta lekuak zaintzeko egin zituzten gastu handien ordainetan. Horrez gain, erregeak Probintziaren esku utzi zuen korrejidore-kargua eta izendapena.

1466-II-16an, berriz, errege berak Segovian Gipuzkoako Probintziari Noble eta Leial tituluak eman zizkion. Apirilaren 20an ere baimena sinatu zuen Gipuzkoako Probintziak Oiartzungo Beloagako (edo Feloagako) gaztelua har zezan. Valladoliden errege berak beste agiri bat sinatu zuen abuztuaren 15ean ermandade-alkateentzat eta Probintziako pro-

kuradoreentzat. Agirian dioenez, Domenjon Gonzalez Andiakoak, Gipuzkoako Batzarren izenean, ermandade-alkateentzat eta prokuradoreentzat jurisdikzioa eskatu zion sorginei aurka egiteko. Erregeak bere agiria Ermandadeko Ordenantza-koadernoan txerta zezatela agindu zuen.

1466-IX-20an Enrike IV.a erregeak Valladolidtik baimena eman zuen Batzar Bereziak Bidaniko San Bartolome elizan edo bertako beste edozein etxetan (Bidanian) bildu ahal izateko.

1466-XI-15ean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Azkoitian izan ziren. Erregeari barkamena eskatu zitzaion Tolosan 1463an Gaon zerga-biltzaile judua hil izanagatik⁴. Erregeari egindako eskabidean diotenez, hark zergak ez ordaintzeko pribilegioa emana zuenez gero, erreinuetako justizia-gizonei eta Kontzejuei agindua ematea komeni zen Gipuzkoako hiribildu eta lekuetan kobratzeko saiorik egin ez zezaten. Erregeak ontzat eman zituen gutunean eskatutako puntu guztiak⁶.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Donostian ere bildu ziren 1466. urtean; izan ere, Enrike IV.a erregeak Segovian abenduaren 29an sinatutako zedulan onetsi egin zituen⁴.

Gipuzkoako merio nagusiaren kargua 1466. urtera arte Arabako Aiara etxekoen esku egon zen, baina urte hartan, merioa matxinatu egin zelako, Enrike IV.a erregeak aiaratarrak kargutik kendu egin zituen¹⁰. Gipuzkoako alkate nagusiak, berriz, arlo zibil eta kriminalean justizia administratzen zuen. Batzarretan eta gastu-banaketan parte hartzen zuen, korrejidorea ez zegoenean⁵.

14.6.2. Alacha-ko kondea, Lasaoko burdinolak, etab.

1466-II-14an Valladolidko Portillo herrian Gaztelako Alfontso infanteak errege-ganberako eskribau eta notario publiko tituluak eman zizkion Martin Diaz Mirubikoari (edo Mihurubikoari)²⁶. Orain Aizarnazabalgoa den Mirubia baserria urte hartan Zumaiako parte zen. Hala ere, 1393-1394 eta 1399. urtean Zestoako parte izan zen Aizarnazabal, eta geroxeago ere,

1470. urtean hasita, beste hamasei urtez halaxe izan zen, Oikiarekin batera, dagokion atalean azalduko dugunez.

Dena den, Martin Diazen eskribau-izendapenean titulua Alfontso erregeak eman ziola esaten da: "... Don Alfon por la gracia de Dios rrey de Castilla, de Leon...". Izan ere, Gaztelan borrokan zebiltzan Enrike IV.a erregearen zaleak eta honen anaia Alfontso infantearen zaleak. Villenako markesa zen Alfontso infantearen babeslea, eta Martin Diazen izendapen-agiri honetan azaltzen da Alfontso "erregearen" ondoan. Benaventeko kondea ere bertan zen. Aurreko urtean, 1465-IV-27an, errege izendatu zuten bere jarraitzaileek, eta 1465-VI-5ean Avilan koroatze-zeremonia ere egin zuten. Alfontso infanteak 11 urte besterik ez zuen orduan.

Dena den, Martin Diaz Mirubikoari Joan Alfon Solano ganbera-eskribauak egingo zion azterketa, eta urtean guztira 8.400 marai irabaziko zituen. Agiri berean Martin Diaz eskribau berria hain zuzen izendeitura bereko Martin Diaz Mirubikoaren seme zela esaten da²⁶.



14.7. irudia.
Aizarnazabalgo
Mirubia baserria.

1466. urtea garrantzitsua izan zen Enrike Lili jaunarentzat. Joan Beltran Liliren (Liliko jaunaren) eta Katalina Hurtado Mendozakoaren semea zen; Joan Beltran, berriz, Martin Diazen eta Teresa Irrarazabalen semea. Joan Beltranek hiru seme-alaba izan zituen: Martin Diaz, Enrike eta Domenja²⁷. Urte hartan, 1466an, Martin Diaz Lili-Mendozakoa zen Liliko jaun, eta anaia Enrike armadan zebilen. XV. mendearen erdi aldera “Lurreko armadetako Landa Maisu Jeneral”²⁸ izan zen Enrike Lili. Siziliako Sirakusako presondegiko eta Baldenotoko gobernadore izan zen. Sirakusak eta Baldenotok Siziliako hiru probintziatarako bat osatzen zuten. Hain zuzen 1466. urtean Siziliako erregeak (Aragoiko printzeak, hau da, gero Fernando II.a *Katolikoa* izango zenak) Messinan Alacha-ko hiribilduko konde izendatu zuen 1466-V-10ean²⁹.

Alacha-ko kondearen titulua familiako oinordekoe-na (lehenbizi Domenja arrebaren eskuetara) pasatu izan da mendez mendez, eta familiako azkena, Maria Luisa Lili-Idiakaitz kondesa, 1945ean hil zen. Bere senideak bezalaxe, Zestoako parrokiako lilitarren kaperan dago hobiratuta. Dena den, 1466-V-10ean sortutako konde-titulua honek orain ere badu bere jabea³².

1466. urteko beste albiste batzuek Lasaoko burdinolak aipatzen dizkigute. San Miliango Markesen artxiboan bada oso kalteturik eta ia guztiz hondaturik dagoen agiri bat. Agiria 1460.eko hamarkadakoa dela dirudi. Joan Lopez Amilibikoa eskribaua aipatzen da, besteak beste. Urtea ez zaio irakurtzen, baina hila eta eguna bai. Irailaren 16an egina, eta 1466. urtekoztatu jo dugu, beste agiri bat ere, antzekoa, urte horretakoa topatu dugulako eta bertan Joan Lopez Amilibikoa



14.8. irudia. Sirakusa hiriko harresiak 1596an, Ludovico Cesano-ren arabera.

Enrike Liliren mendeko presondegia oraingo Maniace gaztelua izango zen³⁰. Esan beharra dago Sirakusa (Sarausua sizilieraz) greziarrek K.a. 734. urtean sortutako kolonia zela. Ortigia izeneko irlan eraiki zuten. Simancasko Artxibo Orokorrean bada 1576an Ludovico Cesano-k egindako mapa bat. Bertan hiriaren harresiak eta gaztelua ikusten dira³¹.

eskrribaua azaltzen delako. Badirudi Oroliditza eta Urruzuno saroiak Lasaoko burdinolen jabeek eskuratu zuteneko salmenta-kontratua aipatzen dela (ikus [XV. m. 30] agiria).

1466-X-6an Martin Gartzia Lasaokoak, Lasaoko burdinolen jabeak, Azpeitiko partean berea zuen

Urruzunoko sarioan zen Joan Lopez Amilibikoa eskribauarekin eta zenbait lekukorekin. Han Zestoako Fernando Edarritzagak (oraingo “Elarritza” edo Erarritzagakoak) bi txondorretan egur-ikatzza egin zuen, eta sarioaren jabe Martin Gartziak kontuak eskatu zizkion. Juan Gartzia aitarengandik jaso zuen Martinek sarioa, eta hango egurrak moztuta egin zuen Fernandok ikatzza.

Fernandok zioenez, hark ustez saroitik kanpoko egurrak moztu zituen txondorrek egiteko, baina onartu zuen Martin Gartziaren saroi eta basoa zela. Barkamena eskatu zion, eta ikatz haiekin nahi zuena egin zezala. Martinek zioenez, Fernandoren arau-haustea larria zen, eta zigor gogorrek merezi zituen. Berriz

halakorik ez zezala egin agindu zion Martin jabeak, eta eramandako mandoetan kargatuta, Lasako burdinolara garraiatu zituen hango ikatzzak.

Juan “Urdinso”, Pedro Altzolarats eta Martin “Biribil” gaztea zestoarrak izan ziren lekuko, erregearen ganberako Joan Lopez Amilibikoa eskribauak idatzitako agirian (ikus [XV. m. 31] agiria). Agiri horretan garbi ikusten denez, Lasan bertan ez ezik, Edarritzagan (edo “Elarritzan”) ere bazen burdinola.

Altzolaraskoa zen Zestoako beste burdinola bat, eta 1466. urtean Pedro Lopez Aiarakoa hil egin zelako, burdinolak ordaindu beharreko “albala eta hamarren zaharra” izeneko zergak jasotzeko eskubidea Oñatiko kondearen esku geratu ziren, hau da, Iñigo Belez Gebarakoarentzat izango ziren⁸.

1466. urtean Zestoako elizan, Ariztondo etxearen hilobia estaliz, harrizko lauza dotorea ipini zuten. Bertan behe-erliebean itsasontziak ditu zizelkaturik, inguruan inskripzioa dutela³³.

Bestalde, 1466. urtean Arrasaten Otxoa Bañez Artazubiagakoak testamentua egin zuen eta bertan Joango Zestonarenak izandako Gesalibarko baserria, sagastia, etab. aipatzen ditu. Hain zuzen esana genuen 1451. urteko albisteetan Arrasaten bizi zen Joango Zestonak eta honen emazte Toda Ortizek 4.153 marai zor zizkiotela Otxoa Bañezi. Beraz, honek zorren truke haien ondasunak bereganatu zituen²¹.



14.9. irudia. Ariztondo etxeak Zestoako elizan zuen hilarria.



14.10. irudia. Zestoa. Hotel Cristina edo Ariztondo etxearen kokalekua. (Kutxaren Fototekako argazkia).

14.7. 1467. URTEA

14.7.1. Altzolarats, Iraeta eta Oñatiko jaunak

Urtearen hasieran, 1467-I-13an, Altzolarasgoiko eta Altzolaraspeko (edo Bekolako) jaunak Getariako Sarasagan elkartu ziren (orain Kiroldedia eta Ikastola dauden lekuan). Bertan zen Sebastian Olazabal batxilerra ere, Joan Martinez Olazabalgoa eskribauaren aurrean. Altzolarasgoikoa dorrea zen (Jauregi ere deitua, orain Altzolarats hutsik deituko duguna). Agiriak dioenez, Beltran Ibañez Getariakoa zen dorretxearen jabea (ikus [XV. m. 32] agiria), baina gure ustez egoikiagoa litzateke Beltran Ibañez Gebarakoa deitzea. Hau Joan Beltran Gebararen (“Mos Gebara” deitutakoaren) eta Maria Beltran Iraetakoaren (Altzolarasko jabearen) semea zen. Beltran Ibañez Maria Ruiz Irrazabalgoaren senar izan zen. Beltran Ibañezen aitona, “Mos” Gebarakoa aitaren aita, Beltran III.a Belez

Gebarakoa zen, eta ezkontzatik kanpo Ines Lazarragarekin izan zuen “Mos” zelakoa³.

Dena den, Getarian Beltran Ibañez Gebarakoa, zestoarra, eta Joan Lopez Altzolaraspeko (edo Bekolako) etxe eta burdinolako jauna bere seme Joanekin elkartu ziren. Sebastian Olazabal batxilergoaren hantxe zen. Haiek ziotenez Altzolaraskoen eta Bekolaskoen artean liskar handiak izan ziren eta izaten ziren. Altzolaraskoek Bekolako lurretatik igaro nahi izaten zuten Urbietta (Urbitta), Bedua, Oikia eta beste zenbait lekutara joateko beren abere, gurdi, orgatxo eta abarrekin.

Bekolakoek, ordea, Bedaman zuten burdinolara, Izetara, Urtetara, Elkanora eta beste zenbait lekutara joan behar zutenean, Altzolarasgoiko lurretatik igaro behar zuten beren abere, gurdi, orgatxo eta abarrekin.

Dena den, Bekolakoek gehiago erabili behar izaten zituzten Altzolaraskoen lurak Altzolarakoek Bekolakoak baino. Ondorioz, haien arbasoek erabakia zuten Bekolakoek Altzolaraskoei urtero hiru kintal burdina ordaintzea.

Auzia Oñatiko Domingo Gebara jaunaren esku utzi zuten. Hura izango zen arbitro eta hark erabakitakoa bi alderdiek beteko zuten. Epaiaren ondorioz, Bekolako Joan Lopezek eta Joan semeak (eta hauen ondorengoek) Beltran Ibañez Gebarakoari (eta honen ondorengoei) urtero beti bi kintal burdina zor izango zioten.

Sebastian Olazabal batxilerrak urteroko bi kintalak ordainduko zituen, eta berme gisa bere ondasunak ipini zituen. Bekolako etxearen erdia, mahastiak, sagastiak eta abar hipotekatu zituen. Bi kintalak martxoan Andre Mariaren egunean ordainduko ziren etetik gabe urtero eta beti. Barra biribil tolestuz osatuko ziren bi kintalak. Kintal bakoitzak 147 libra pisatuko zituen, eta urtero bi kintalak Beltran Ibañez Gebarakoak Getariako Kale Nagusian zuen etxearen ondoan utziko ziren. Etxe hark zituen mugakideak ere zehazten dira agirian.

Zorra ordaintzen ez baldin bazen ezarriko ziren zigorrak ere zehaztu zituzten. Gainera, Beltran Ibañez Gebarakoak edo honen oinordekoek erraztasun guztiak izango zituzten Bekolakoek eta Sebastian Olazabal batxilerraren ondasunak exekutatzeko. Lekuko honako hauek izan ziren: Lope Martinez Zarauzkoa, Pero Ibañez Altzolaraskoa (Getariako auzotarra) eta Lope Otxoa Olazabalgoa.

Agiria sinatu eta segidan Joan Ibañez Altzolaraskoak (Bekolakoak) eta semeak zin egin zuten aurreko agiriak zioena bete egingo zutela. Sebastian Olazabal batxilerrak ere gauza bera egin zuen (ikus [XV. m. 32] agiria).

Agiri honek adierazten duenez, Beltran Ibañez Gebarakoak (Altzolarasko jauregi edo dorre, burdinola eta erroten jaunak) Getarian etxea zuen, eta badi-

rudi bertako itsas portua baliatuz merkataritzan zebilela. Kontuan hartzekoa da, bestalde, Bekolako etxearen erdiaren jabe Sebastian Olazabal batxiler getariarra zela.

1385-V-12an Lope Otxoa Olazabalgoa zen Altzolarasko burdinolaren jabea (ikus [XIV. m. 8] agiria), eta, 1385-VII-18an Zestoako hiribilduaren lurraldea mugatu zutenean, Bedamako presa aipatu zen, Lope Otxoa Olazabalgoena (ikus [XIV. m. 9] agiria). 1397-IV-22an Otxoa Lopez Olazabalgoa, Lope Otxoaren semea, azaltzen da Azkoitian ordainketa batean (ikus [XIV. m. 21] agiria), eta 1398-XII-29an ere bai Zestoako olagizonek bertako Kontzejuarekin izandako auzian (ikus [XIV. m. 22] agiria). Otxoa Lopez eta Elbira Gartzia Altzolaraskoaren semea, Joan Lopez Olazabalgoa, 1417. urte inguruan azaltzen zaigu ezkontza-kontratua egin zuenean (ikus [XV. m. 8]



14.11. irudia. Bekola edo Altzolaraspeko burdinolaren aurriak.

agiria). 1467-I-13an, berriz, Joan Lopez Altzolaras-koak Bedaman burdinola zuela esaten da, eta Bekola-ren etxe-erdiaren jabea Sebastian Olazabal zen. Gure ustez Sebastian Olazabal getariarra eta Joan Lopez Altzolaraskoa familia bereko bi adarretako senide ziren. Adar batekoek ez zuten deitura aldatu, eta, aurreko mendeko Lope Otxoa bezala, Olazabal abizenari eutsi egin zioten. Beste adarrekoek, berriz, Altzolaratsen geratu zirenek, bizilekuaren izena hobetsi zuten eta, Olazabal alde batera utzita, Altzolarats hartu zuten deituratzat Bekolakoek.

1467. urtean beste gebaratar bat Enrike IV.a erregearen inguruan zebilen goi-mailako karguetan. Iñigo Belez Gebarakoa, Oñatiko jauna, Errege-kontseiluko kide zen; baita Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errioxa eta Enkartaziotako kapitain jeneral ere³.

1467ko urtarrilean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Donostian bildu ziren. Bertan erregearen zedula jaso zen, non Probintziak Lapurdirekin zituen desadostasunak azaltzen baitira³⁴.

Gaztelako errege berak 1467-III-20an beste agiri bat sinatu zuen. Getariako herriari urteko 6.000 maraiko zerga barkatu egin zion²⁴. Errege berak Madrilen 1467-V-20an gutuna egin zuen Gipuzkoan atzerritarrek ondasun-errentarik izan ez zezaten³⁵.

1467-VI-24an, Segovian, Gaztelako Enrike IV.a erregeak gutuna sinatu zuen Iraetako Fortun Santxez jaunaren eskariari erantzunez. Lehen Cadizko Jimena de la Frontera herrian errege berak erbesteratuta ibilia zen Fortun musulmanen aurkako gerran, baina geroztik Enrike IV.ak saritu egin zuen. Iraetako Fortun Santxez ahaide nagusiak bereak zituen Aizarna, Zestoa, Aizarnazabal eta Oikiako monasterio eta elizetako patronatuak eta Zestoako hiribilduko probesutza, Beduan ere jurisdikzioa zuela. Zestoako eliza Aizarnakoaren mende zegoen, eta Oikiakoa Aizarnazabalgoaren mende. Eskubide horiek Fortun en aitak ere izan zituen, hura bizi izan zenean. Eskubide haiek Fortun jaunak Joan Beltran III.a Iraetakoaren (bere

semearen) esku uztea eskatu zion erregeari, baina monasterio eta elizen bikariotzei zegokiena alde batera utzita; izan ere, bikariotzei zegokiena beti bertako abade eta apaizentzat izan baitzen.

Erregeak zioenez, eliza haiek Latrango kontzilioa baino lehenagotik Gaztelako koroarenak ziren. Beraz, erregeari zegozkion bertako patronatua, hamarrenak, opalkuntzak eta gainerako errentak, baina Fortun en arbasoek erregeari egindako zerbitzuak saritu nahian, Enrike IV.ak Fortuni eskubide haiek guztiak eman zizkion. Erregeak, Fortun Santxezen eskariz, eskubide haiek denak Joan Beltran Iraetakoaren (Joan Beltran III.aren) eta honen oinordekoen esku utzi zituen behin betiko.

Erregeak segurtatu egin zuen bere mesedea, haren mendeko guztiei gutunean ezarritakoa bete zezaten aginduz eta aurka eginez gero izango zuten zigorra zehaztuz (ikus [XV. m. 33] agiria).

Interesgarria da agiri honetan Latrango Kontzilioaz egiten den aipamena. Aizarnako eta Aizarnazabalgo monasterioak ziren zaharrenak, eta horien mendeko ("sufraganeas" dio testuak) eliza berriagoak Zestoakoa eta Oikiakoa, hurrenez hurren. Zestoako eliza hiribildua 1383an sortutakoan eraiki zen, eta Oikiakoa ez dakigu ziur noizkoa den, baina Zumaiak 1344-XI-30ean Orreagarekin egindako enfiteusi-kontratuan Oikiako San Bartolome eliza aipatzen da, dagokion atalean azaldu dugunez.

Dena den, Latrango laugarren Kontzilioa 1215. urtean egin zen (hirugarrena 1179an, bosgarrena 1512-17an), eta Gaztelako koroak Gipuzkoako lurak 1200. urtean bereganatu zituen. Beraz, bi monasterio horiek 1200-1215 bitartean eskuratu zituen Gaztelako erregeak, hau da, Alfontso VIII.ak edo ondorengo Enrike I.ak. Bestalde, Tenpleko ordena Hugues Pains edo Payenskoak Jerusalem 1119. urtean sortu zuen, eta tradizioak dioenez, aipatutako bi eliza horiek tenplarioenak izan ziren. Baliteke Gaztelako erregearenak baino lehen XII. mendean Tenpleko ordenarenak izatea.

1467-VI-15ean Marina Saenz Likonakoak eta Beltran Ibañez Oñazkoak (Loiolako jaunak) ezkontza-kontratua egin zuten. Marina emaztegia Martin Gartzia Likonakoaren (Ondarroa doktoarearen) eta Markesa Baldaren alaba zen. Martin Gartzia alabak Aragoiko urrezko 1.600 florineko dotea izango zuen. Ondarroa doktorea Azkoitiko Baldako jaun eta Erregekontseiluko kide zen. Ezkontza 1467-VII-13an ospatu zen Loiolan bertan. Ezkontza hartatik hamaika seme-alaba jaioko ziren, eta hain zuzen hamaikagarrena izan zen Iñigo Lopez Loiolakoa, hau da, San Inazio⁵.

1467-VIII-28an Enrike IV.a erregeak Medina del Campo herrian egindako agirian Ondarroa doktoari agindua eman zion Gipuzkoaren, bertako ofizialen eta Batzarren auzi zibil eta kriminaletan abokatu izan ez zedin⁴.

14.8. 1468. URTEA

14.8.1. Usarragako Batzarrak, eta Ahaide Nagusiak

1468-II-7an Bidaniko Usarragan Probintziako Batzar Bereziak ospatu ziren. Ermandadearen Batzar Bereziak biltzeko hiru kasuak zehaztu ziren. Pertsona hildakoan, erregearen aginduz eta indarkeria erabili zenean bil zitezkeen, bestela ez³⁶. Enrike IV.a erregeak Salamancako Bejar-tik berretsi egin zuen 1468-II-17an Usarragan erabakitakoa. Egun berean, Gipuzkoako Batzarrek eskatuta, baimena eman zion Probintziari Hondarribiko gaztelua eduki eta gorde zezaten.

1468-VII-29an Enrike IV.a erregeak Madrildik Gipuzkoari haren anaia Alfontso infantea hil egin zela jakinarazi zion. Erregeak Gipuzkoari honako hau eskatu zion: Frantziari gerra aldarrika ziezaiola, baina Berri, Borgonia eta Britainiako dukeei ez⁴. Frantziak gerra hasi zuen Gaztelako Enrike IV.aren aurka, baina ez hil berria zen Alfontso infante eta anaiaren aldeko lurraldeen aurka. Gaztelako erregeak Gipuzkoari Bizkaiko konderrikoekin elkartzea ere

1467. urtean, lehenago bezala, Pierres Peralta (Nafarroako Leringo kondea) Joan I.a erregearen aldeko izan zen, baina erregearen alaba Leonorrek eta Gaston IV.a Foixko kondeak (senar-emazteek) Nafarroa gobernatu egin nahi zuten. Aholkulari preziatue-na Iruñeko Nikolas Etxabarri apezpikua zuten, eta, ondorioz, Lerinen Gomez Frias kapitainak preso hartu zuen apezpikua. Zailtasun guztiak gaudituz ondoren, anaia Joan Martinez Egiakoak (Lizarrako auzotarrak) askatu egin zuen Nikolas Etxabarri⁷. 1467-VI-20an Zaragozako Ejean erabaki zuten Nafarroako erreinua eta Nemoursko dukerria (oraingo Seine-et-Marnen) Leonorrenzat izango zirela eta Fernando printzearentzat Aragoiko koroaren lurralde guztiak¹⁵.

agindu zion. Gainera, Haroko kondearen laguntza izango zuten. Bestalde, Frantziako erregeari laguntzen ziotenak erbesteratu egingo zituzten, haien ondasunak bahitu ondoren⁶.

Gaztelako erregeak 1468-VIII-4an Madrildik gutuna bidali zuen Gipuzkoara. Probintziari baimena eman zion Nafarroako erreinuarekin Mugako Ermandadea eratzeko. Erregeari Ermandade hark izandako historiaren berri eman zitzaion. Egun berean erregeak baleztak erabiltzeko Probintziak aurkeztutako Ordenantza onetsi zuen. Baita Arrasaten legegabeak ez onartzeko Ordenantza ere. Egun bereko beste zedula batean Enrike IV.ak Probintziako Ordenantza-koardena berretsi eta Ahaide Nagusien tregoetan egotea debekatu egin zuen⁴. Agian debeku horren berri ematen duen agiria da Gipuzkoako Artxibo Orokorrean dagoen agiri bat³⁷.

Egun berean, 1468-VIII-4an, erregeak Probintziaren beste eskabide bati baiezkua eman zion: alegia, gerra zegoenean eta gerra-deia egiten zenean jendeak ez zezala Probintziatik irten.



14.12. irudia. Tolosa. Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

Horiez gain, erregeak Probintziako Batzarrei eskubidea aitortu zien Kontzejuen arteko eta Kontzeju eta pertsona partikularren arteko auziak (baita kriminalak ere) epaitzeko. 1468-VIII-10ean erregeak, Madrilen beste agiri bat sinatuta, errege-asegurua Probintzia hornitzen zutenengana zabaldu zuen. 1468-VIII-18an, berriz, Gipuzkoako prokuradoreei gutuna bidali zien, haien eskubidea ikusi zuela eta Frantziako armada mugan zegoela adieraziz. Azkenik, 1468-IX-25ean Segoviatik, Enrike IV.ak Gipuzkoako Bartolome Zuloaga prokuradoreak adierazita, honako hau jakin zuen: Probintziako Ordenantzek ez zutela ahalmenik ematen Kontzejuen arteko auziak epaitzeko. Erregeak, ordea, bere agirian ahalmena eman zion Probintziari Kontzejuen arteko auzi zibilak eta kriminalak epai zitza⁴.

14.8.2. Iruñeko apezpikua erahila. Lasaoko amuarrainak

1468an Azpeitiko elizan Martin Antxieta zegoen erre-tore, baina ez zen ongi konpontzen patronatua zutenen apaizekin elizaren errentak banatu behar zirenean. Orduan Joan Perez Loiolakoa abadeak (Joan Perez Loiolakoaren sasiko seme eta Beltran Loiolaren sasiko anaiak) Iruñeko Nikolas Etxabarri apezpikuarengana jo zuen arazo hartan bitartekari izan zedin⁵. 1468a, ordea, zorigaitzokoa izan zen Iruñeko apezpikuarentzat. Nafarroako Leonor printzesak (Nafarroako gobernadore izanik) eta erreinuko Hiru Estatuek kexak bidali eta kontsultak egin zizkieten Joan I.a erregeari (edo Aragoiko Joan II.ari). Erregearen erantzuna aztertzeraz berriz bildu ziren Nafarroako

Gorteak, eta bertan elkarrizketa gatazkatsuak izan ziren. Pierres Peraltak beti defendatzen zuen erregea, baina Nikolas Etxabarri Leonorren alde ateratzen zen. Pierres kondestableak eta apezpikuak elkarri hitz gogorak esan zizkieten. Printzesak kondestableari zin eginarazi zion Etxabarrirekin zituen gorabeherak baketsu konponduko zituela. Pierresek, ordea, apezpikuari segada prestatu zion, eta laguntzaileek Tafallan lantzaz jota hil egin zuten Nikolas Etxabarri, 1468-XI-23an¹⁵. Iruñeko katedralean hobiratu zuten.

Ondoren, kalonjeak bildu eta Pedro Foix hautatu zuten Aita Santuari apezpiku izenda zezan aurkezteko. Pedro Leonor printzesaren eta Foixko konde eta senar Gastonen semea zen. Hautatua gaztea zen, 20 urte bete gabea, eta ez zen elizgizona. Paulo II.a aita santuak, hala ere, baimena eman zezakeen Pedro apezpiku izan zedin, baina ez zuen onartu, gogoz eskatu bazioten ere⁷.

1468-XII-14an Gaztelako Enrike IV.a erregeak Toledoko Ocañako herrian agiria sinatu zuen Lasako Martin Gartziaren eskakizunei erantzunez. Erregearen agiri honetako lehen orrialdean, falta denean, eta bigarrenaren hasieran, badirudi Ladron izeneko jaunak Martin Gartzia Lasakoari egindako salmenta-eskritura kopiatzen duela. Fernando Martinez Garrazakoa eskribauaren aurrean zin egin zuen, nonbait, Ladron jaunak, eta, Martin Gartziak eskatuta, agiria idatzi zuen eskribauak. Erregeak dioenez, Martin Gartziaren aitaren garaian eta Martin Gartzia semearenean, hauek beren mendi, lur eta lekuak (agiri honetan aurrean idatzita dauden kontratu publikoetan zehaztutakoak) inolako oztoporik eta etenik gabe gozatu eta erabili zituzten.

Hala ere, Azpeitiko eta Zestoako Kontzejuek azkenaldian, pertsona gorrotagarri batzuen eraginez, eragozpenak ez ezik, zalantzan jartzen zizkieten delako lur, mendi eta lekuak. Ondorioz, Martin Gartziak erregeari mesede eskatu zion salmenta-kontratu haiek berrets eta onetsi zituzten. Mesede eskatu zion, halaber, Zestoa eta Azpeitiko alkate, epaile, Kontzeju, unibertsitate eta beste edonori lur, mendi eta leku haietan

Martin Gartzia Lasakoari eragozpenak jartzea debekatu ziezaien eta, bestela, zigorrak ezar ziezazkien.

Martin Gartziak, bestalde, Enrike IV.ari jakinarazi egin zion erregeak berak Gipuzkoako Ermandadeari mendietako ganaduei buruzko ordenantza eman ziola, non Probintziako edozein mendi eta larretan (landutako lurretan edo hesitakoetan izan ezik) bazkatzeko askatasuna ematen baitzien. Ganaduek, ahuntz eta behorrek izan ezik, eguzkitik eguzkira larratu ahal izaten zuten, baina, herri-lurretan ibili arren, herrikoak ez ziren abereak bahitu egiten zituzten bertakoek.

Dena den, ordenantza haren aitzakian Martin Gartzia bere lur, mendi eta barrutietara behi, idi eta beste zenbait abere sartzen zioten. Lasatarrak, ordea, bere burdinolarako ikatza ugari egiten zuen mendi eta lur haietan. Bospasei urtean behin hartzen zuen egurra basoetatik, baina basoa berritzen ari zela idi, behi eta abereek hondatu egiten zizkieten landareak. Ondorioz, abereen jabeek zuten onura baino askoz ere handiagoa zen ganaduek egiten zuten kaltea. Gainera, erregeak burdinolan zituen eskubideak ere kaltetzen ziren.

Lasako dorretxea ezkutarien leinukoa zen, aspaldikoa, bere burdinolak, errotak, mendiak, larreak eta urak zituen. Denek zekiten ondasun haiek zeintzuk eta norenak ziren. Gainera Lasako etxeak eskubideak zuten ibaian amuarrainak eta bestelako arrainak sareaz eta trainaz harrapatzea debekatzeko. Hiribilduetako jendeak, ordea, sare eta trainaz arrantza egiten zuten ibaian (Urola ibaian), eta bertako arrainak ezingo ziren ugaldtu.

Horren guztiaren erremedioa eskatu zion Martin Gartziak erregeari, eta honek, Kontseiluko jendearekin gaia aztertuta, bere agindua eman zuen. Erregeak onetsi egin zituen Lasakoaren ondasunen salmenta-kontratuak, eta eragozpenak jartzen zituenarentzat hamar mila maraiko zigorra ezarri zuen. Gipuzkoako ordenantzari buruz ere erabakia hartu zuen. Ordenantza Probintziako Kontzeju askok ez zuten betetzen,

eta horrela erregearen errentak eta eskubideak kaltetu egiten ziren. Beraz, Martin Gartzia baimena eman zion bere mendi eta lurretara sartzen ziren ganaduak bahitzeko. Ganadua lursail hesitura sartzen zenerako zegoen isuna kobratu ahal izango zuen.

Bestalde, Martin Gartzia eskubidea izango zuen jendeari ibaira arrantzara joatea debekatzeko. Halaber

haiens areakl asaotarrarenl urretaraa teratzeko.S areak bahitu ahal izango zizkien (ikus [XV. m. 34] agiria).

Garbi ikusten da Zestoako Lasaoko burdinolaren jabeak erregearengana iristeko eta honengandik mesedeak lortzeko erraztasunak zituela. Burdina, izan ere, lehengai estrategikoa eta preziatua zen garai hartan.

14.13. irudia. Zestoa.
Urola ibaia Lasaon.



14.9. 1469. URTEA

14.9.1. Batzarrak Mutrikun eta Elgoibarren. Getaria, Zumaia, etab.

1469-I-30ean Gaztelako Enrike IV.a erregeak agiria sinatu zuen Gipuzkoako Ermandadearentzat arauak emanaz. ermandade-alkateek ezingo zuten, legelari ezagunen aholkurik gabe, Ermandadeko kide zen inor torturatu. Bestela Ermandade-alkatea hiltzera kondenatuko zuten. Ermandade-alkateek ez zuten preso hartuko hamar mila marai baino gehiagoko ondasunak zituen bertako kiderik, auzi-jartzailerik ez zegoenean.

Bestalde, mahaiburu zeuden abokatuek epaiak sinatu egingo zituzten, eta epaiak ezeztatzen baldin baziren, kostuak ordaindu egin beharko zituzten³⁶.

1469-II-4an Valladolidko Errege-kantzelaritzak agiria atera zuen Getaria, Donostia eta Mutrikuko hiribilduen alde. Balea-eskubideak Albar Gomez Castrokoari ez ordaintzeko eskubidea eman zien²⁴.

1469-V-29an Getaria eta Zumaiako hiribilduek ituna sinatu zuten Zumaiako hondartza eta itsasadarraren erabilpenari buruz. Egun batzuk lehenago Otxoa Martinez Portukoa, Getariako Kontzejukoa, Lope Ñígez Elorriagakoa alkatearengana joan zen bi herrien arteko mugei eta jurisdikzioei buruzko eskakizunekin. Zumaiako hondartza eta itsasadarraren erabilpenaz ziren eskeak, baina Zumaiako alkateak 1416an bi herriek egindako itunaren kopia eman zien getariarrei, eta maiatzaren 29an lehengo ituna berri-
tegin zuten³⁸.

Egun berean, 1469-V-29an, Erroman Paulo II.a aita santuak Gipuzkoako landa-artzapez Joan Perez Okendokoa izendatu zuen, Rodrigo Borgia kardinalaren senidea. Honela dio Aita Santuaren agiriak: "...Iohannes Petri de Oquendo ... archipresbiteratus ruralis provincie de Guipuzcoa, dicte diocesis... dilecti filii nostri Roderici, Sancti Nicolai in carcere tullia-

no diaconi cardenalis, sancte romane ecclesie vice-cancellarii familiaris continuus conmensalis, deque provintia predicta oriundus existit, ..."³⁹. Rodrigo Borgia Xativan 1431. urtean jaio arren, familia jatorriz gipuzkoarra zen, eta 1492-1503 bitartean Aita Santu izan zen, Alexandro VI.a izenez. 1469an kardinal eta Erromako kantzelariorde zen.

1469. urtean Mutrikun Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren, eta hauek Enrike IV.a erregeak Ocañan urtarrilaren 30ean egindako agiri batean aipatzen dira.

Urte hartan bertan, 1469-XI-21ean Elgoibarren bildu ziren Batzar Nagusiak. Hurrengo urtean errege-onespena izango zuten zenbait ordenantza onartu ziren⁴. Batzar Nagusi haietan jaso zenez, Tolosako herria erre egin zen urte hartantxe¹¹. Horregatik Gipuzkoako gastuetan sukaldeka ordaintzea zegokio-
netik 80 sukalderena barkatu egin zioten hurrengo hamabost urterako³⁶.

Urte hartan Gaztelako erregeari eskabidea egin zioten Kontzejuen arteko auziez Probintziak bi urterako zuen ahalmena luza zedin. Erregeak 1469-I-30ean lau urteko luzapena eman zien. Egun bereko beste errege-gutun batean ermandade-alkateei ahalmena eman zien Enrike IV.ak Gipuzkoako Probintzia Gaztelako koroatik besterendu nahi zutenak epaitzeko⁴.

Gaztelako koroak garai hartan "itsasoko hamarrena" edo "hamarren zahar eta lehorra" izenekoa jasotzen zuen itsas portuetan edo portuen mende zeuden barruko aduanetan. Itsasoz inportatzen eta esportatzen ziren zenbait gairengatik eskatzen zuen zerga hura. Irun eta Donostia bitartean itsasoan eta Oria ibaiaren arroan Nafarroako mugan kobratzen zen "itsasoko hamarena". Gipuzkoako agintariak zerga haiek errentan ematen zizkioten eskaintza onena egiten zuenari, baina 1469. urtean, erregearen dohaintza

zela medio, Belasko familiak zuen zerga hura jasotzeko eskubidea¹⁶.

1469. urtean Joan Ortiz Zarauzkoak bere gain hartu zuen Zarautz etxeko agintaritzza. Izen bereko aitaren eta Debako Maria Iñigez Sasiolakoaren semea zen Zarauzko Ahaide Nagusia⁵. Beste Ahaide Nagusi bat Iñigo Belez Gebarakoa zen. Zenbaitek dioenez, Enrike IV.a erregeak eman zion Iñigori Oñatiko konde-titulua, baina horren frogarik ez dute ematen³.

Iruñeko elizbarrutia apezpikurik gabe zegoen, aurreko urtean Nikolas Etxabari hil egin zutelako. Paulo II.a aita santuak Fernando Baquedano hautatu

zuen elizbarrutiko bikario nagusi, Joan I.a erregearen idazkaria, hain zuzen, baina Iruñeko kalonjeek ez zuten onartu, kargu hartarako pertsona aurkeztea haiei zegokielako. Ondorioz, Domingo Orreagak bikario nagusi izaten jarraitu ahal izan zuen.

Bestalde, Nafarroako Gorteen 1469-V-4an Joan I.a erregeari ordezkariak bidali zizkieten Nikolas Etxabarriren hilketagatik justiziak lan egin zezan. Ez zuten ezer lortu Nafarroako erregearengandik⁷. Urte hartantxe, urrian, Nafarroako eta Aragoiko erregearen Fernando semea eta Gaztelako Enrike IV.a erregearen arreba Isabel ezkondu egin ziren Valladoliden¹⁵. Hilaren 19a zen, eta senar-emaztegaiek 17 eta 19 urte zituzten, hurrenez hurren.



14.14. irudia. Zarauzko Narros jauregia, Ahaide Nagusia.

14.10. 1470. URTEA

14.10.1. Martin Gartzia Lasakoaren ordainketa, eta Gipuzkoako Batzarrak

1470-I-8an Martin Gartzia Lasakoa Azpeitiko Enparangoikoa etxearen aurrean zen. Otxoa apaiza, Joan Otxoa eta Joan jaunak, azpeitiarrak, ere hantxe ziren beren etxe aurrean. Elkarren arteko auzi batean Beltran Ibañez Oñazkoak (Loiolako jaunak) eta Joan Beltran Iraetak (Iraetako jaunak) epaia emana zuten, eta, ondorioz, Joan Gartziak Enparan etxekoei 250 florin eta urrezko 2 enrike ordaindu behar zizkien. Ordainketa hura egin zuelako, Enparango hiru jaunak ados geratu ziren, eta Joan Gartziari ordainagiria eman zioten. Ordainketa hura zela eta Martin Gartzia Lasakoaren aurka ez joateko konpromisoa hartu zuten, bermeak emanda. Domingo Martinez Olastondokoak eta Joan Martinez Amilibikoak, erregearen ganberako eskribauak, idatzi zuten agiria. Beltran Ibañez Oñazkoa (Loiolako jauna), Martitxo Loiola, Domingo Olastondo jostuna eta Joan Martinez Olatzagakoa hargina izan ziren lekuko (ikus [XV. m. 35] agiria).

Agiri horretan ez da zehazten auzia zeri buruzkoa zen, baina argi eta garbi dago Loiolako jauna Beltran Ibañez zela eta Iraetakoa Joan Beltran, hau da, Fortun Santxezen semea edo Joan Beltran III.a.

1470-I-12an Gaztelako Enrike IV.ak mesede egin zion Martin Diaz Mirubikoari (Mihurubikoari). Edarritzagagoeneko eta Edarritzagabarreneko burdinoletan erregeak jasotzen zituen “albala eta hamarren zaharreko” zergak eman egin zizkion biziadira. Edarritzagagoeneko burdinola Otxoa Edarritzagarena zen, eta Edarritzagabarrenekoa Fernando Edarritzagarena, 1466an Urruzunoko sarioian, Lasako jaunaren basoetan, legez kanpo egur-ikatza egin zuenarena. Arroerrekako Zubeltzuko burdinolako zergak ere Martin Diazi utzi zizkion errege berak⁸.

Diez de Salazar historialariak dioenez, Otxoa Edarritzaga ontzi-zaina (“barquero”) zen, baina gure iri-

tziz hauspagina (hau da, “barquero”) zen lanbidez. Lasao eta Lasaoerrekan, bestalde, hiru burdinola azaltzen zaizkigu: bi Edarritzagan (orain “Elarritza” deitutako etxe bakoitzean bat), eta Martin Gartziarena (bere olatxoarekin). Gainera onuraduna, Martin Diaz Mirubikoa (Mihurubikoa) 1466-II-14an Enrike IV.ak errege-ganberako eskribau izendatutakoa zen, esana dugunez.

1470-V-27an Oñatin, hiribilduko Kontzejua batzartuta, bertako Ordenantzak onartu zituzten. Udala gobernatzeko hainbat arau ezarri zuten³.

Azkoitian 1470eko uztailean Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu ziren, erregearen 1470-VII-8ko gutun batek aipatzen duenez⁴. Batzar haietan Gaztelako erregeari eskea egin zitzaion Probintzia errege-asegurutik kanpo gera ez zedin⁵. 1470-VIII-20an eta 23an, berriz, Enrike IV.a erregeak Medina del Campon beste Ordenantza batzuk onetsi zituen. Aurreko urteko azaroan Elgoibarko Batzar Nagusietan onartutako Ordenantzak berretsi egin zituen. Besteak beste, ermandade-alkateek beren ofizioan lana gaizki egiten bazuten Batzarrek neurriak hartzeko ahalmena izango zuten⁴. Beste ordenantza batean “exekutore” edo “betearazleak” aipatzen dira. Probintziaren ofizialak ziren, eta bakoitzak bere barrutian lan egiten zuen. Probintziako gastuak zuzen eta bere garaian ordaintzen ez zituzten auzotarren zigorrak, ondasunak exekutatuta, betearaztea zen³⁶.

Gipuzkoan beren ofizioak maltzurkeriaz erabiltzen zituzten eskribauak (edo eskriturak ematen ez zituztenak) Batzarrek epaitu ahal izango zituzten. Errege-asegurua hausten zutenen aurkako neurriak hartu ziren⁴. Errege-asegurua Probintziako auzotar guztiak zuten. Beraz, nahitaez Ahaide Nagusien mendetik irten egin behar zuten bertako biztanleek. Erregearen mende egongo ziren³⁶.

Probintziako Batzar Nagusiak ere arautu ziren. Urtean bi ospatuko zituzten, bakoitza hogeita bost

egunekoa. Guztira bederatzi ordenantza onetsi zituen Gaztelako erregeak.

Hurrengoa Batzar Berezia izan zen, Usarragan 1470-X-15ean bildu zena. 1470ko azaroko erregezedulan aipatzen da. Azaroko 20ko zedulan onartu egin zen Gipuzkoako Batzarrak Ordenantzetan zehaztutako lekuetatik kanpo ere egin ahal izatea. Eskabidean esaten denez, Batzar Berezia Azkoitiko Basarten zenean prokuradoreek Azkoitian eta Azpeitian hartzen zuten ostatu, eta Batzarra Usarragan zenean Bidanian, Zalbiden eta beste zenbait etxetan. Erregeak ontzat hartu zuen Batzar Bereziak Bidaniko San Bartolome elizan, Andre Maria Olazkoaren elizan edo Azkoitiko Santa Kruzkoan egitea⁴.

147-XI-2an Tolosan Kontzeju irekia izan zuten, ohi bezala. San Miliango Errodrigo eta haren mende-koak (Zizurkil eta Adunakoak) Tolosako jurisdikzioan hartzea erabakitzeke. Alkate, zinegotzi eta ofizialekin batera gainerako auzotarrak ere han ziren, eta haietako bat Joantxu Aizarna zen, jatorriz Aizarnakoa, dirudienez⁴⁰.

1470-XI-22an Segovian Gaztelako Enrike IV.ak zedula bidali zuen Oñatiko kondeak (Iñigo Belez Gebarakoak) eta zenbait lekutako auzotarrek Arrasate erretzea barkatzeko egindako ituna onetsiz¹.

14.10.2. Aizarnazabal eta Oikia Zestoarekin. Nafarroako gorabeherak

1470. urteko azaroaren 20tik eta abenduaren 6a arte Hernanin bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Abenduaren 6an Enrike IV.a erregearen alaba Joana andrea oinordekotzat hartu zuten, zin eginda⁴.

Batzar Nagusi haietan, 1470-XII-4an, Zestoa, Aizarnazabal eta Oikiak Zumaiarekin zuten auzi garrantzitsuari buruzko epaia eman zuten. Saiazko biztanleek (Aizarnazabal eta Oikiakoek) Zumaiako gastu guztietan parte hartzen zuten, baina Zestoako hiribilduko jurisdikziora sartu berriak ziren, eta ez zuten inork eragozpenik ipintzerik nahi. Saiazko biz-

tanleek eta Zestoako hiribilduak eskea egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gai hartaz Basarten ere epaia emana zuten prokuradoreek. Azpeitiko Joan Perez Bikuñakoa batxilerrak auzia aztertua zuen, eta Zumaiakoek Basarteko Batzar Berezietan Alfontso (XI.a) erregearen pribilegioa aurkeztu zuten. Hori dena aztertuta, Batzar Nagusiek Hernanin honako epai hau eman zuten: Zumaiak bere eskubideak behar bezala frogatu zituela, eta Zestoak ez. Beraz, Zestoak ez zion Zumaiari trabarik ipiniko Zumaiak Saiazko jendea haren alkate, epaile eta abarren jurisdikziopean eduki zezan. Saiazkoak Zumaiako auzotar izango ziren, eta hiribilduaren gastuetan parte hartuko zuten. Zestoako herria auzi hartan egindako gastuak ordaintzera ere kondenatu zuten.

Joan batxilerrak sinatu zuen epaia. Gero, Pedro Ibañez Dorrekoka batxilerrak, Zumaiako prokuradoreak, epaia onartu egin zuen, baina Zestoako Sebastian Olazabal batxilerrak epaiarekin ados ez zegoelako gora joko zuela jakinarazi zien. Hauek izan ziren lekuko: Martin Ibañez Lertxundikoa batxiler zarautarra, Joan Otxoa Iribekoa eta Pedro Saez Ibargoiengo azkoitiarrak, Iñigo Saez Goiazkoa azpeitiarra, etab. Domenjon Gonzalez Andiakoak, Batzarretako eskribau fielak, idatzi zuen epaia (ikus [XV. m. 36] agiria).

Dena den, Zestoak gora jo zuen epai harekin ados ez zegoelako, eta auziak 1486-VII-20a arte iraun zuen Valladolidko Kantzalaritzan. Ondorioz, hamasei urtez Aizarnazabal eta Oikia Zestoako parte izan ziren⁴¹.

Nafarroan giroa ez zen oso barea 1470. urtean. Bi urte lehenago Pierres Peraltak Nikolas Etxabarri hil egin zuen, baina Joan I.a erregeak ez zuen inola ere zigortu. Are gehiago, 1470. urtean alaba Leonorri Pierres kondestablearekin adiskidetzeta gomendatu zion. Hala ere, Aita Santuak hurrengo urtean zigortu egin zuen hiltzailea⁷.

1470. urteko azaroaren 23an Nafarroako Leonor printzesaren eta Foixko konde Gastonen semea, Gas-

ton izenekoa, hil egin zen. Bordele inguruko Libourne hirian torneo batean urriaren 18an egin zizkioten zaurien ondorioz, azaroaren 23an hil zen. Gaston hil berriak, Nafarroako oinordeko izateko Frantzisko

Febo eta Katalina ume txikiak utzi zituen, emazte Madalena Frantziakoarekin izandakoak. Haiek izango ziren, hurrenez hurren, Nafarroako hurrengo errege eta erregina¹⁵.



14.15. irudia. Zestoaren mugak 1470-1486 bitartean.

14.11. HAMALAU GARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ XX. 1461-IV-12/V-9. Arrasate, Segovia. Cédula real de don Enrique en que se confirma la escritura de concordia celebrada entre el conde de Oñati y vecinos de varios lugares sobre el perdón de la quema de Arrasate. (Oñatiko Udal Artxiboa. Documentación de particulares. Documentación del conde de Oñati. 1148. kutxa 3. espedientea. 3-62. or.). (Oharra: agiri hau original zaharragoaren 1590-VII-7ko kopia da).

² CRESPO RICO, M. A. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo III (1451-1470). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 68. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (272-281, 319. or.).

³ AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985. (158, 193, 194, 199, 201, 344-353. or.).

⁴ ORELLA UNZUE, J. L. *El origen de las Juntas de Gipuzkoa*, in Historia de las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (17-20, 40-50, 54, 65. or.).

⁵ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (75, 79-83, 105, 106, 109, 111, 125, 147, 168, 180, 275, 277, 285, 343. or.).

⁶ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (238, 248, 249, 258. or.).

⁷ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (547, 549-551, 572, 576, 577, 589, 594-598. or.).

⁸ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (362, 383, 389, 401-403, 471, 473. or.).

⁹ ALVAREZ FERNANDEZ, C. eta beste. El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (355, 349. or.).

¹⁰ TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (200, 373, 374. or.).

¹¹ ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3 eta 4. koadernoak, 1978. (549, 550, 551. or.).

¹² AIERBE IRIBAR, R. M. eta ETXEZARRAGA GABILONDO, J. Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520). Fuentes documentales del País Vasco, 94. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1999. (78-80, 87, 93-97. or.).

¹³ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (200-203, 235-251. or.).

¹⁴ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Colección documental del Archivo de la cofradía de pescadores de la Villa de Lequeitio (1325-1520). Fuentes documentales del País Vasco, 80. Eusko Ikaskuntza, 1991. (3-5. or.).

¹⁵ AROZENA, F. *San Igancio de Loyola y el linaje de Balda*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Donostia, 1945. (183. or.).

¹⁶ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (311, 321-325, 328, 343. or.).

¹⁷ LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI), in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). (84, 87, 89, 98, 99. or.).

¹⁸ TRUCHUELO GARCIA, S. La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII). Bekak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (64. or.).

¹⁹ LEMA PUEYO, J. A. *Dos instituciones en la formación de Gipuzkoa: las Alcaldías de la Hermandad y las Merindades del Corregimiento*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (92. or.).

²⁰ GARCIA FERNANDEZ, E. “*Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus veçinos e pueblo e republica*”: de los Fueros a las Ordenanzas municipales en la Privincia de Guipúzcoa (siglos XII-XVI), in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). (34, 47. or.).

²¹ MANSO DE ZUÑIGA, G. *La quema de Mondragón*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Donostia, 1948. (378, 379. or.).

²² MITXELENA, K. Textos arcáicos vascos. Minotrauro argit. Madril, 1964. (90-92. or.).

²³ Xabier Alberdi Lonbide eta Fernando Txueka Isasti jaunen bidez jakin ahal izan dudanez, “balliner” edo “belliner” ontzia balea harrapatzeko erabiltzen zuten, hau da, balea-ontzia zen, eta sei edo zazpi marinel eramaten zituen. Bela bat ere ipintzen zioten haize-indarraz baliatzeko. Ontziaren ohol horizontalak (kaskoa osatzen zutenak) ametzezkoak ziren karel aldean, eta haritzezkoak saihets eta gila aldean. Ametzezko oholak teilkatuta zeuden, bikingoen ontzietan bezala, baina haritzezkoak topeka (ertza ertzaren kontra) muntaturik zeuden. Hasieran ontziaren kasko osoa teilkatutako oholez egina zen, baina, itsasoan ontzi-mota horrek zarrata ateratzen zuelako, ez zen egokia balearengana hurbiltzeko. Ontziaren izena gaskoia da, diotenez. Katalanez ere “balener” deitzen zaio balea-ontziari. Bistan da Joan Martinez Aizarnakoak bere “balliner” delakoa merkataritzarako ere erabiltzen zuela. Balea harrapatzera itsasora urrun samar joaten zirenean, bidaia burdina eta

gainerako gaiak eramateko aprobetxatuko zuen. Eskerrak eman nahi dizkiet Alberdi eta Txueka jaunei.

²⁴ ACHON INSAUSTI, J. A. “A voz de Concejo”. Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa. Ikerlanak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (142, 145, 146. or.).

²⁵ TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Boletín LXIV-1-2008. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Donostia, 2008. (119. or.).

²⁶ XX. 1466-II-14. Portillo. Valladolid. Título de escribano de cámara y escribano y notario público a Martín Díaz de Mihurubia. Simancasko Artxibo Orokorra. Sección XVI. Contaduría Mayor de Hacienda. Escribanía Mayor de Rentas. serie: Quitaciones de Corte. Leg. 4-106-107. (1-4. or.).

²⁷ XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. San Telmo Museoa. Donostia. Lilitarren artxiboa [22.5]. 22. paper sorta. (3. or.).

²⁸ Kargu hori zuena ia beti armadetako bigarren agintari izaten zen. Lehen agintaria erregeak izendatu ohi zuen, eta miliziakoa ez zen izan ohi.

²⁹ XX. Tres certificaciones del Rey de armas de los blasones que corresponden a las casas de Lili e Idiaquez. San Telmo Museoa. Donostia. Lilitarren artxiboa [33.4]. 33. paper sorta. (27. or.).

³⁰ ARZALLUS, F. *Lili bat Sizilian*, in Danbolin aldizkaria. 2003ko uztaila. 31. alea. Zestoa.

³¹ Siracusa. Disegno de las defensas de la citá de Siracusa por Ludovico Cesano. Escala 345 mm las 180 cannas. Tinta y colores, con explicación en italiano. 870 x 1707 mm. Recuadro de 830 x 1677 mm. Simancasko Artxibo Orokorra. Sec. XVII. Mapas Planos y Dibujos. II-28. Estado. Leg. 1.146-60.

³² CADENAS LOPEZ, A. A. eta CADENAS VICENT, V. Elenco de grandezas y títulos nobiliarios españoles. 2006. Instituto Salazar y Castro. “Hidalguía” aldizkariaren argitalpenak. Madril, 2006. (37, 38. or.). (Oharra: Maria Teresa Sainz Intxaustegi andrea da orain Alacha-ko kondesa).

³³ Ariztondo etxearen hilobiko harlauza elizaren barruan erdi aldean, sarrera nagusiko atearen parean eta erdiko pasabidearen kontra, herriko plaza aldera, zegoen, luzetara elizaren ardatz handiarekiko paralelo. Hantxe ikusi genuen Anjel Arandia parroko zenaren garaian, 1970. urte inguruan, elizako zurezko zorua kendu eta baldosa ipini zuten arte. Harrezkero koroaren azpian, Eliz kaleko sarreraren ondoan, horman bertikal txertaturik dago. Ariztondotarren harlauzak, besteak beste, behe aldean gutxienez lau itsasontziren irudiak ditu zizelkaturik, eta inguruan esaldi hau: “Esta sepultura es de la casa solar de Areiztondo i las esculpidas en esta piedra son las armas de dicha casa. Los anibersario cada uno por los difuntos de esta casa. Esta sepultura se renovó el año de 1899.” Behe aldean 1466 urtea markaturik du. Ez da erraza lauza horretan dagoen armarriko irudiak ikustea; izan ere, mendetan zehar gainean eliztarrek zapalduta oso higatuta baitago. Hilarriaren azterketa sakonagoa ikusteko: PERONA LERTXUNDI, J. M. Las naos de Cestona. Donostia, 2007.

³⁴ LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. *Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Junta sen la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru

Aldundia. Donostia, 1995. (109. or.).

³⁵ ALVAREZ FERNANDEZ, C. eta beste. El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (351, 390. or.).

³⁶ ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (158, 163, 167, 168, 172-175, 194-196, 349-351, 379. or.).

³⁷ XX. Cédula del rey don Enrique IV dada al parecer en 1468, que trata de la ejecución de dos ordenanzas impetradas contra los Parientes Mayores que habian construido algunas torres, sin autorización del rey, y hecho confederaciones. GAO, Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 1/6/14. (Orri bakarreko agiria da. Zati handiak falta ditu eta oso kalteturik dago. Alde batean “Basarte VII” irakurtzen zaio, eta badirudi 1468an otsailaren 7an egindako Batzar Bereziari dagokiona dela. Bertan Domenjon Gonzalez Andia eskribau dela, lekuko gisa P^o Ibañez Otalorakoa, Joan Martinez Mantelolakoa, Fernando Perez Berastegikoa eta Fernando Martinez Garratzakoa azaltzen dira. Orriaren beste aldean erregearen gutunaren zatiak irakur daitezke, eta data ezin da osorik irakurri. 1468kotzat hartu da, baina ez dago erabateko segurantzirik).

³⁸ ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaiaiko Udala. Zumaia, 1998. (68. or.).

³⁹ GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián, del siglo XIV al XIX*, in Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián. Donostia, 1969. (58-61. or.).

⁴⁰ LEMA PUEYO, J. A eta TAPIA RUBIO, I. Colección diplomática del Archivo Municipal de Tolosa. Tomo II (1420-1499). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 65. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (59. or.).

⁴¹ XX. Valladolid. Ejecutoria del pleito sobre si los vecinos de Saiaz y otros lugares son vecinos de uno u otro concejo. Concejo de Zumaia contra el concejo de Zestoa. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias. 4/26).

